

- Entzutekuak: Hirigintzako batzordeburuari elkarrizketa
- Kirola: Sorako Erregional nesken taldea finalean

soraluzeko
hamabostekaria **198.** alea
2009ko maiatzaren 8an

pil-pilean



Haize tropikalak euskal soroetan

LURRALDEBUSeko istorioak

LURRALDEBUS

Brian, 21 urte

"Ingalaterrakoa da eta Erasmus
bekagatik dago Donostian.
Berak ere gustuko du Maitane."

Jatorria: Donostia Herrera
Norakoa: Donostia Ibaeta

Maitane, 19 urte

"Filosofia ikasten du unibertsitatean,
Brian-en gela berean dabil eta beraz
maiteminduta dago."

Jatorria: Donostia Gros
Norakoa: Donostia Ibaeta



ENARA AGIRRE



AITOR MORILLO

TXARRIXAK PROTAGONISTA BETI

Aupa Aitor!!! Zelan gabiz? Dantzari eguneke nekiak pasata? Jo ni psikosixak jotzen hasitta nao... telebista edo irratixa piztu edo egunkarixa eskuartian hartuta bestelako motiborik ez dau emoten. Berri onen bat jaso badozu esaidazu, mesedez, girua pixkat alaitzeko premiñia badao eta.

Azkena, oingoz behintzat, Mexikotik dator: txarrixen gripia pertsonak gaixotzen hasi da eta ia Ipar Amerika eta Europan begero eta kasugehixago diagnostikatu dittuzte. Lehen hegazitxak, gero barazki eta fruta transgenikuak eta oinguan txarrixak altxatu dira gure kontra, mundua amaitzera doia, apokalipsixa dator!!!

Egoeria larrittuz doia eta alerta maila ia 5era be pasatu dabe (letik 6rako eskala baten ez da brometako kontua. Oin txarritik pertsonara kutsatziaz aparte pertsonatik pertsonara be kutsatzen da). Panorama honen aurrian txarrixak dittugu protagonista, eta zelan gainera, gure janarixa gure etsai bihurtu da eta. Gainera, betiko lineari jarraituz oinguan be pobretutako herrialde bat bihurtu dau pandemiak haztegi.

Pentsa zenbat txartu dan panoramia mugak eta dana ixteko asmuakin dabizela. Aukeran mugak nik beste askori be itxiko notsezen, txarri gripia baino larrixago eta hilgarrixaguak diran *bi hankako txarri* asko dabiz eta hortik solte, ez dozu uste? ●

“

Oinguan txarrixak altxatu dira gure kontra, mundua amaitzera doia

Enara Agirre

hegazti gripiak 2004-2006 urtien artian eragindako heriotzak mundu guztian 97. 2007-an VIH birusak eragindako heriotzak 2 milioi

Aitor Morillo

”

Iepa Enara!!! Ezertan hasi aurretik lagundu duko dostazu gauzatxo bat bilatzen? Leku danak miatu dittut baina ez dot inun ere topatzen...zuk ez dozu jakingo nun ote dagan EGUZKIXA? Bere falta somatzen dot!!!

Nik uste hau dana gaizki portatzian ondorixo zuzena dala, biblian kontatzen dian 7 plagen antzeko zerbait: Lehenik eguzkia ezkutatu eta euritea jasan zuten... Ondoren txerri eraileen birusa...uy, honek biblia baino gehixago B serieko filma bat ematen dau. Bada-kizu 7 plagetako azkena seme/alaben heriotza zala etxia arkume odolez estaltzen ez bazan? (*To serie B!*).

Bueno Enara, pixkat serixo jarritta wikipedian begiradatxo bat bota eta zera aurkittu dot: hegazti gripiak 2004 - 2006 urtien artian eragindako heriotzak mundu guztian 97. 2007an VIH birusak eragindako heriotzak 2 milioi. Gosiak 2008 urtian eragindako heriotzak 8 milioi. Oin norberak atara ditzala ondorixuak.

Bukatzeko, mugak istian inguruan, daganeko birusa gurian bada, nik uste nahi dabezena zera dala, 5 milioi kaltetu potentzial posiblei atiak istia! (*Datu hau wikipedian aurkittu ahal dozue. Ez, gripian infektatuen estimaziñuen orrixan ez. Juan zan urteko etorkin kopuruan bai!*).



Goguan hartzeko

Auzokoaren agineko minek ez du burukomin handirik ematen
Gotzon Garate. Euskal atsotitzak.



GUTUNAK

12.000€
FATXADA
GARBIKE-
TETAN

Jakinekoa da herritarren aldetik zer egoeratan Jaurkitzen diren kale eta etxeetako horma eta fatxada ezberdinak. Benetan penagarria da Soraluzearen herri estetikak jasan duen itxura aldaketa, hori bai txarrerantz. Ez da bakarrik Soraluzetarrok jasan behar dugun eta salatzen dugun egoera bat. Herritarrek ez diren pertsona askok ere antze-man eta aditzera eman duten egoera bat baizik.

Aurreko legealdian gure taldeak proposamen bat mahaigaineratu zien alderdi politiko ezberdinei. Herriko zenbait tokitan panel batzuk ipintzea herriko kaleetako eta etxeetako fatxadek horrelako erasoak jasan ez zituzten. Aurkeztutako ideiak ez zuen aurrera egin. Oraingo legealdian ere proposamen bera egin genion udal gobernuari eta Eusko Alkartasuneko zerrendaburuak ontzat ikusi zuen planteatutako ideia.

IHARDUNALDI
ANTI-DESARRO-
LLISTAK

Gaur egungo gizartea, gizatasunaren heriotzara bidean garamatzen gurdia da. GU GARA, gurdia mugiarazten duen indarra, GU GARA, zaldia, GU GARA, bidaiari esplotatuak, GU GARA, erru-berak. Gidariak, kapitalismoaren aurpegi krudela du. Kopilotua berriz, aurpegi gabeko estatu alperra da. GURDI BIDEA, ez dago larrosa petaloz egina. GURDI BIDEAri, odol eta heriotz kiratsa dario; Indibiduen gorputzez eta jende nultzoz beteriko dago, bide frenetiko honen aurkako erresistentzian edota aldaketaren ahaleaginean aritu zirenen gorpu- ez. Errealitate hau arroxak kolorez margotu digute ongizateaz eta etorkizunaz hitz egiten diguten horiek, soilik kapitalaren interesei erantzuten dieten horiek. Beraien proiektu bakoitzak gure sustraie- tati aldentzen gaitu eta sistemarekiko sumisoago bilakatzen. Guk gizaki eta ingurugiroaren arteko harremanean eta errespetuen sinesten dugu, giza- kion berekoikeriatik at. Ingurugiroari eraso jasan ezinak eta beraren esplotazioa salatuz, eta gizar- tearen lan eta kontsumo eredu argiak erlazionatuz

Aurten bailarako Dantzari Eguna Soraluzean ospa- tu da eta antolaketa guztiak eskatzen zeban lana haundia izanda be azkenian egun ederra urten zan. Baina hau ezinezkoa izango zan aurreko egunetan eta egunian bertan gure albuak izan zittugun lagun eta bo- luntariorik gabe. Horregaitik Urrats Dantza talde eta

Legealdiari hasiera eman zaionetik 2 urte igaro dira eta gauzak berdin jarraitzen dute. Soraluzet- tarrek ez dakitena da guzti honek duen kostua her- ritarrentzat. Urtean zehar 12.000 tako partida bat zehazten da aurrekontuetan garbiketara hauei aurre egiteko. Adibide bezala, behin baino gehiagotan erasotua izan den Batzokiaren garbiketaren kostua 1.700 € takoa izan da. Ez da lehena izango ez eta az- kena ere ez zoritxarrez. Gure herriko kaleetako eta etxeetako hormek jasan behar duten eraso hau. Be- raz, deia berrero ere luzatzen diogu udal gobernuari egoera honen aurrean neurriak hartu dezan.

Ordua da eta !!!

SORALUZETARROK EAJ / PNV UDAL TALDEA

eta autokritikatuz... Autokritikaren lehen pausua, kapitalismoaren erregai nagusiak gu geu garela argi izanez.

Hausnarketa pertsonal baten ondoren, taldean biltzen hasi ginen, gure zalantzak elkarbanatuz eta eztabaidatuz. Maiatzean zehar ekimen ezber- dinak (*hitzaldiak, bideoak, irteerak,...*) bildu dit- ugu, Norberaren hausnarketa pertsonalean balio- garri izango direlakoan. Beste mundu bat posible da, beharrezkoa da. Utz dezagun gurdi hau bide bazterrean indargabeturik.

Bestalde, maiatzaren 11an, Gasteizko epaitegian, iaz AHTren Aramaixoko lanetan protesta bat egite- arren 17 lagun izango dira epaituak, hauetatik 5 la- gun soraluzetarrak dira. Konzentrazioa 11:30etan Gasteizko epaitegi aurrean. Maiatzaren 25ean be- ste 7 lagun izango dira epaituak Bergaran, Arra- saten lurren desjabetzeak direla eta buruturiko protestetan partehartzearen, hauetatik 2 lagun soraluzetarrak dira.

Soraluzeko Euskal Jai Batzordetik eskerrak emotia nahi zotsuegun lagundu zozkuzuen danori, zuek bare ezingo genduan eta halako jai ederra ospatu.

ESKERRIK ASKO ETA ANIMO!!!

**Urrats Dantza Taldea
eta Soraluzeko Euskal Jai Batzorde**

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkari- ko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1, PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzio burua:** Leire Iturbe
Erredakzio batzordea: Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi
Logotipoa: Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Azala:** Pablo Galarraga
Diseinua eta maketazioa: Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563
Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZETARROK
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Lorea de Castro

Ametsetik errealitatera... Aupa Sora!

“Zu, Plaentxin nesken futbol taldia sortu dala entzun dot, zeozer badakizu?” Herritar askok hola eduki ginuan herriko nobedadian berri. Urte askotako nahixa zan Soraluzen nesken futbol taldia sortzia eta urte luzez herriko futbolzaliok beste ekipo batzuetan jokatu bihar izan dogu, hori bai, egunen baten berde eta beltzez jazteko ilusina mantenduz. Aurten ilusio hori, amets hori, errealitate bihurtu da, eta zela gainera! Lehenengo urtian marka guztiak apurto, liga irabazi, gure multzoko igoera fasea gainditu eta talde jaio berri hau maila igoerara bidian jarri dogu. Datorren larunbatian, maiatzak 9, denboraldiko partidurik garrantzitsuenan eta gogorrenan aurrian egongo gara: Gipuzkoako finala jokatu dogu Bergaran arratsaldeko 18.00etan Arrasateko taldean kontra. Hemendik deialdi bat egittia nahiko neuke Plaentxiko futbolzale eta futbolzale ez dianak be bertara hurbiltzeko; eruan deigun Ezoziko girua Bergarara bebai! Bukatzeko, eskerrak emotia bakarrik gelditzen jata, gure partidutara etorri zareten danori, gure emaitzegaittik interesatu zaretenoi, kaletik animuak emoteko prest egon zareten guztieri: **ESKERRIKASKO**. Aupa Sora!! Finalian ikusiko dogu elkar...

((ENTZUTEKUAK))

Aitor Prieto
Hirigintzako batzordeburua

Zer da zehazki saihebidian egongo dana?

Ondiok ez dogu erabaki. Momentuz, herritarren ekarpenak jasotzen gabiz. Ekarpentak, guk proposatutakuari gehitu eta uste dogu hilabete honetan erabakiko dala zer egongo dan saihebidia.

Ze onura ekarriko dittu?

Erdialdia kotxiendako itxita egotia herritarrendako la-saittasuna ekarriko dau. Oin momentuan, beti kotxiak saihesten ibili bihar gara, umiak zaintzen... Inguruko herri askotan hartu da erdialdia itxeko erabakia eta hasieran mol-datu egin biharko gara, baina gero herri guztixandako onurak ekarriko dittu.

Zenbat ekarpen jaso ditzuzue?

Herritar talde baten aldeko 279 sinadua aurkeztu zittuan. Bestela, momentuz, 9 ekarpen jaso dittugu, aldekuak eta kontrakuak. Kontrakuen artian, Gabolatx kalian bizi diran herritarrenak dare. Izan be, euren garajietan kotxia sartzeko ardura erakutsi dabe eta aldeko ekarpena emon dabenak be, saihebidian norabide aldatetia ez dabe argi ikusten.

Proposamenak aurrera egi-tten badau, zer galduko da?

Zer galduko dan edo zer ez esatia oso pertsonala da. Herritar bakoitzak bere iritzia izango dau.



Noizko uste dozue amaituta egongo dala?

Aurrera egitteko erabakia hartzen badogu, margoketa lanak eta seinalizazina bakarrik egin bihar dira eta proiektua epe motzian gauzatuko dala uste dot.

**Jendian
bizi kalitatia
hobetuko da
peatonaliza-
zinuakin**

Horrekin aparkalekuen arazua konponduko da?

Udalak kaleratutako aldizkariko datuak ikusitta, aparkalekuen arazua ahal dan neurrian behintzat konpontzeko, proposamen merkia eta eraginkorra izango dala uste dogu.

Kontrako iritzia daukan bati, zer esango zeunskixo?

Herri txiki baten bizi gara eta hemengo distantziak ez dira kilometrikuak. Kotxian, herri guztixari bueltia emoten 3 minutu tardatzen dira. Etxetik 300 metroa aparkatzia be, oinez 3 minutu dira. Ezin doguna da, danok etxe azpitan aparkatu. ●



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

**Errekalde 21
20590 SORALUZE**

T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

**H.NOS. BENITO
ANAIK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuesto konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Zazpi soraluzetar epaituko dituzte AHTaren kontrako ekimenengatik



Epaiketak salatzeke Aramaion egindako prentsurrekoak

AHtaren Aramaio lanetan protesta egitearren hama-zazpi lagun, horietatik bost soraluzetarrak, epaituko dituzte datorren maiatzaren 11n. Beste zazpi pertsona, tartean, bi soraluzetar, epaituko dituzte mai-

tzaren 25ean, Arrasaten lurren desjabetzean egindako protestetan parte hartzea leporatuta. Maiatzaren 11eko epaiketa egunean, kontzentrazioa izango da Gasteizko epaitegi aurrean. ●

Motorzaleen kontzentrazioa maiatzaren 24an



Motoclub Plaentxik motorzaleak bildu nahi ditu eta horretarako ekitaldi ugari prestatu dituzte. Motor gainean Soraluzen hasi eta bukatuko den ibilbidea egingo dute, Eibar-Ermua-Zaldibar- Berriz -Markina-Ondarroa-Mutriku- Deba-Mendaro-Elgoibartik pasata. Gero baba-jana izango da eta opari banaketarekin amaituko da kontzentrazioa.

KZgunean IT txartelaren azterketak eta mintegi berriak martxan

Soraluzeko KZguneak, ordutegi berria izango du datorren maiatzaren 4tik aurrera. Arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. IT txarteleko azterketak egin ahal izango dira, hil honen 4an, 12an, 15ean, 18an eta 28an. Azterketok gainditzen dituztenek oposaketan puntuak lortuko dituzte. Horrez gain, ohiko moduan internet eta informatikari loturiko mintegiak ere antolatu dira. Guztia doan izango da eta beti bezala, erabiltzaileek internet erabiltzeko aukera izango dute.

Mintegiak:

- Internet eta E-Administrazioa kurtsoa (Gaz)
- Komunikatu zaitze posta elektronikoko bidez (Eus)
- Sinadura elektronikoa (Eus)
- Internet eta E-Administrazioa kurtsoa (Gaz)
- Irudi digitalen tratamendua I (Eus)
- Irudi digitalen tratamendua II (Eus)
- Sinadura elektronikoa (Eus)

Herriko hainbat pertsona eta elkartek agerraldia

EAK, Txuri Urdinak, Futbol taldeak, Mendi taldeak, Pelota taldeak, EHEK, Gazte Asanbladak, LAB-ek, Ezker Abertzaleak, Elkartetzen-ek eta SEGIk Peloren askatasunaren alde egin dute. 600 sinadura ere jaso dituzte. Maiatzaren 13an mozioa eztabaidatuko da eta maiatzaren 15ean, ekitaldia egingo dute Kiroldegian arratsaldeko 19:00etan.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Herriko iturrien zaharberritzea



Udaleko brigadak egoera okerrean zeuden herriko iturriak berritu ditu. Zehazki, Mandaitturri eta Sagarre-rrekako iturriak konpondu dituzte eta Sapako iturria ere berritzen ari dira.

Maiatzaren 29an
Elkarbizitza Eguna

Pasa den ikasturtean adostu zen moduan, 2008-2009 ikasturterako zenbait ekitaldi eta jardura aurreikusituzten Plaentxi LHiko irakasle eta familiak Urteko Elkarbizitza Planaren barruan. Horrela ba, maiatzaren 29an, ostiralean, eskoletako komunitate ezberdinen arteko eguna izango da. Festa giroan ospatu nahi dute egun hau.

EGITARUA:

17:00etan, aurkezpena.

17:15ean, TXOKO MUGIKORRAK; lau egongo dira:

- “Elkarrekin ikasten” murala.
- Matxinsaltoak.
- Arkatx-ardatza.
- Zuhaitza osatzen.

18:00etan, “AFARI-MERIENDA MUNDIALA”.

18:45ean, tripia berriz arintzeko

“DANTZA SAIO ANIMATUA”

19:30ean, AMAIERA.

1962an jaiotako bazkaria

Aipatu urtean jaiotakoek bazkaria egingo dute Txurrukan datorren ekainaren 13an. Joan nahi duenak duenak izena eman dezala ekainaren 6a baino lehen jotetxean edo 943.75.15.81 telefonoan. Bazkari egunean 14:00etan Txoko tabernan elkartuko dira bazkaltzera joateko.

Langabeziak %98 egin du gora urtebetean

Soraluzeko Udaleko Ongizate Saila prestazio ekonomikoak ematen dihardu langabezia daudenei gutxieneko diru sarre-rak bermatzeko. Aipatu Saileko Irantzu Benitoren arabera, azken lau hilabeteetan nabarmen igo da diru-laguntza hauen eskaria, hamalau pertsonak eskatu dute. Bestalde, Giza Larrialdi Laguntzetan hamazortzi pertsonak egin du eskaria. Laguntza hau etxeko oinarritzko gastuei aurre

egitea errazteko da, ura, alokairua modukoei aurre egiteko.

Langabeziak gora

Bestalde, goranzko joera hartu duen beste faktore bat langabezia tasa izan da. INEMeko datuen arabera, iazko martxoan Soraluzen 144 langabetu zeuden. Aurtengo martxoan berriz, ia bikoiztu egin da kopurua, 286 langabetu egon dira. Bietan emakumezko langabetu gehiago egon da. ●

LANGABEZIA SORALUZE
2008-2009KO MARTXOA

2008 Martxoa = 144


Emakumezkoak = 90

Gizonezkoak = 54

2009 Martxoa = 286

Emakumezkoak = 146

Gizonezkoak = 140



Liburu Eguna Hau Eskolan

Liburu Eguneko irudia.

Apirilaren 23an Haur Eskolan Liburu Eguna ospatu zuten. Aurten “Pinotxo”ren 70. urteurrenaren harira, eskola murrakiz bete dute eta eskola sarre-rra ere apaindu dute. Liburu Eguneko ekitaldiak ixteko, apirilaren 24an, “Txiliku” idazlea egon zen 3. mailakoe-kin solasean.



GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Etxabe Harategia
Euskal txabalkia Bildotsa
Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
T. 943 75 2375

Aseguruak euskaratzeko kanpaina herrian



Euskaraz seguruago kanpaina abiatu du Kontseiluak Euskal Herri osoan. Kanpainaren helburua aseguru etxeak zerbitzua euskaraz ematera bultzatzea da. Soraluzen, Pil-pilean Euskara Elkartek garatuko du kanpaina. Hori dela eta, euren aseguru etxeari eskaera egiteko gertu dauden soraluzetar eta elkarteek eskaerak bideratzeko laguntza berezia eskainiko die Pil-pileanek. Bereziki honako egun eta orduetan jo daiteke bertara:

Egunak: Maiatzaren 18tik – 22ra bitarteko egunetan
Orduak: 18:00etatik 20:00etara

Eskaera Pil-pilean bitartez bideratu nahi duenak, NAN zenbakia eta bere aseguru-etxearen helbidea ekarri beharko ditu datorrenean. Bestela, www.kontseilua.org webgunetik ere egin daiteke eskaera. ●

Etxeko atarian euskaraz

Etxe honetako bizilagunek etxeko ataria zabaldu diote euskarari. Bere garaian txirrineko norabideak euskaraz jarri zituzten. Ekimen txikia baina esanguratsua.



Euskarari ataria itxita

Atari honetan ere atea itxita daude euskararendako. Ea poliki-poliki herriko atariak zabaltzen dizkiogun euskarari. Zabaldu atea.



ZER EGIN?

Aseguruak euskaraz

“ Aseguru etxiari zerbitzua euskeraz emateko eskatu ”

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak aseguru etxeek euskarazko zerbitzua eman dezaten eskatzeko kanpaina hasi du Euskal Herri osoan. Ehundaka euskaldunek eskaera berdina eginda aseguru etxeak euren zerbitzua euskaraz ere ematera bultzatzea da helburua.

www.kontseilua.org edo Pil-pilean Euskara Elkartearen daude eskariak egiteko orriak. ●



Zulotik
begiraBizirik hiltzen...
edo halako zerbait

Beldurrezko ipuina
(Lehenengo zatia)
Miren Goenaga

Aspaldi batean, iturrietan lamiak azeudenean, Anboton Mari bizi zenean eta herensugeak existitzen zirenean, bazegoen Lide izeneko neskatila bat. Bakartuta zegoen herrixka batean bizi zen, Oñatitik hogei bat kilometrotara. Negua zen, hotza zegoen eta haizeak bortizki jotzen zuen etxeetako leihoetan. Lide bakarrik zegoen, kalean, aitek egundoko jipoia eman ondoren. Neska gizarajoak egun hartan bertan alde egin behar izan zuen urrutira... batek daki nora. Pare bat pauso, hiru, lau... geroz eta gehiago eta azkarrago, putzuetan bota zikinak zipristintzen zituelarik. Euria gogor ari zuen eta aterpe bila jo zuen. Geldiune bat eginda, ezagutzen ez zuen herri bateko eliza baten aterpean gorde zen. Atarian eskaleak zeuden, limosna eske. Iluntzen hasi zen, eguzkia bat-batean mendien atzean ezkutatu zen. Atertu zuen pixka batean eta une egokia iruditu zitzaion aldapan gora ibilbideari jarraitzeko. Galduta zegoen dagoeneko. Urrutira, leizezulo bat ikusi zuen eta oraingoan itxura beldurgarria zuen toki hark. Iristen ziren argi izpien bitartez, leizezulotik hegan irtendako saguzar baten itzala ikusi zuen. Ikaratuta, beldurtuta, hotzez dardarka zegoen. Itsu-itsuan bertara sartzea erabaki zuen, beste guztia ez zitzaion axola, hotzez zegoen... Behelainoarekin ezer gutxi ikusten zuen eta arnas-estuka ailegatu zenean, hezetasunez beteriko horman gorputza beherantz labant-

Anboton Mari bizi zenean eta herensugeak existitzen zirenean, bazegoen Lide izeneko neskatila bat.

zen utzi zuen lurrera iritsi arte. Batbatean, berarengandik gertu, otsoen uluak entzun zuen. Bihotz-taupadak areagotzen joan zitzaizkion, geroz eta gertuago sentitzen baitzituen... Burua ezkererantz biratu zuen orduan, astiro, oso astiro... Bere begien parean ongi zorroztutako hortzak ikusi zituen eta etenik gabeko begirada sakon bat. Zutitu zen, ahal izan zuen bezala, eta izerditan, oihuka, leizezulo barrurantz ihes egin zuen. Ez zituen, ez, metro askorik egin, bidean oztopo batekin tupust egin, labandu eta seko erori baitzen. Begiak nekez zabaldu zituen, sekulako buruko mina zuen. Zerbaitek kezkatzen zuen; ez zekien non zegoen, ez nola, ez zergatik... Hori bai, usaina jasanezina zen eta, gutxi balitz, leku

Bere begien parean ongi zorroztutako hortzak ikusi zituen eta etenik gabeko begirada sakon bat.

itxia zen, ez zegoen argitasunik. Aurrera begiratzean argirik ez, atzeko aldean ere ez, eskuin eta ezkerrean dena ilun ... Gora begiratzean, zerbaitek ikusi ahal izan zuen... Zulo batean zegoen!!! Soinu arraroak entzun zituen, baina ezin izan zuen ezer ulertu. Izkina batean ezkutatu zen, ikatzez beteriko mendi-tontor baten atzean. Bahitu egin zutela pentsatu zuen lehenengo, amets gaizto bat izango zela geroago... Estu eta larri zegoen, pertsona horiek edo dena delakoak gerturatzen somatu zituen eta. Begiak itxi zituen, hatzaparrak gurutzatuz, ezer txarra gerta ez zedin. Zabaldu eta, hara non ezustea! Bi metroko... ●



Haize tropikalak euskal soroetan



Izagirre-Etxetxoko landetan ortua landatu du Antonio Romerok bertako jabeak lagata. Lehendik baserriari buruz zekizkienak bertoko soroetako baldintzetara egokitu behar izan ditu eta emaitza laster ikusiko duelakoan dago.

Antonio Romero eta senideak soroan

Duela zazpi urte iritsi zen Antonio Romero (Ekuador, 1972) Soroluzera. Igeltsero moduan lan egiten duen arren, bada hilabete nekazaritzari heldu diola. Izagirre-etxetxoko lurretan ortu dotorea landatu du eta ez da lan erraza izan, izan ere, lurra lautzean izan da zailena: *“Orain ortu laua dagoen lekuan lehen muinotxo bat zegoen eta berau zapaltzeko lanak izan genituen. Makinak berak ere ezin lurrak astindu! Baina pazientziaz hartu genuen eta azkenean lurrak amore eman eta hartu zuen behar zuen itxura”*. Eguraldi ona lagun dutenean, lan-talde polita biltzen da mendian, egun pasa joanda.

“Hasieran makinekin ere ezin genuen lurra lautu, lan handia eman zigun”

Izagirre Baserriko Ana Goiburu pozik azaldu da bizilagun berriekin: *“Etorri zirenean gure erremintak eskeini genizkien. Neri segurtasuna ematen dit norbait izatea baserri ondoan eta asko poztu nintzen”*.

Bere aitak arroza landatzen du Ekuadorreko El Guayas probintzian, modu horretan, txikitatik jaso du nekazaritzarako zaletasuna. Hala ere, ez dago ohitura hemengo baldintza meteorologikoekin ortuan lan egiten: *“Ekuadorren mendi alde eta kostaldea dago. Mendi aldeak hemengo antza du ordea, kostaldean baldintzak guztiz desberdinak dira. Soro honekin erronka berri bati ekin diot, lehenago sekula ez baitut lan*

egin hemengo barazki eta landareekin, patata, aza, gindila, piperra, letxuga... denak dira berriak niretzako. Gure kliman, tropikalean, beste batzuk landatzen ditugu. Hemengo lurra oso ona da landatzeko eta espero dut hila bete ba-tzuetan emaitzak ikustea”.

Bananak, mandarinak, kokoa, toronja (laranjaren antza du), txirimoia, mangoa... denak Ekuadorreko barazki eta fruituak dira. Antoniok ere, bere herritik ekarritako sandia haziak landatu ditu, baita “hierbita” ere, gure perrexilaren moduko belarra, artoa, kalabaza eta “tomate zuhaitza” ere bai, tomate horiek zukuak egiteko erabiltzen dituzte.

Harro dago egindako lanaz: *“Ikusten duzun larre honetan, besteak beste, 80 kilo patata, 150 letxuga eta 800 tipula daude”.* Hasieran, bera bakarrik iritsi zen Soraluzera lanera: *“Abuztua zen hona heldu nintzenean, eta neguko hotzak ustekabeen harrapatu ninduen. Oso gaizki pasa nuen... Pentsa, elurra zer zen ere ez nekien!”.* Ordutik hobera egin du lagun amerikarraren egoerak, senideak Euskal Herrira ekartzea lortu du eta diru pixkat egin da Ekuadorren eraikitzen ari den etxea amaitzear duela dio. Jaiolekura itzutzeko gogoa duen galdetzean, joan joango dela dio, baina diru nahikoa duenean izango da hori. ●


Lantzen dituzten produktuak:

Aza, kipula, patata, letxuga, gindila, piperra, zilantroa, pepinoa, leka, tomate, hierbita, kalabaza, sandia.



Antonio Romero gustora dago ortua izatarekin





OÑATIKO NATUR ESKOLA

A izkorri—Aratzeko Parke naturalaren inguruetan kokatuta dagoen Oñatiko Natur Eskolara irteera egin genuen. Ingurumena ezagutzeko aukera ezin hobea eskaintzen du : erreka eta baso ekosistemen azterketa, baserri ingurunea eta animaliak, zaborra eta erreziklajearen inguruko tailerrak...

Baso ekosistemaren azterketa: ibilbidean, animaliak eta hauen aztarnak, xomorroak, inguruko zuhaitz eta landareen fruitu, lore, hostoak...
Aztertu genituen.




Baserri ingurunea: Baserrietara bisita egin genuen, bertako abereak eta baserriko bizimodua ezagutzeko.



Ogiaren tailerra: Arratsaldean, ogia nola egiten den ikasi genuen. Bakoitzak bere ogi opila egin zuen.



txiki



inkesta

Zer nahi dozu izatia nagusixa zaranian?

Zegaittik?

Mikel Gaiztegi, 6 urte



Neri zezenen errektatoria izatia gustatuko jatan, beraien gainetik txiribueltak aurrera eta atzera egitteko. Ondiok ez naiz zezen baten aurrian jarri baina ikasiko dot! Bestela, ez bajata gustatzen, igeltserua izango naiz, etxiak egitteko.

Soukayna Sijilmassi, 7 urte



Neri haur hezkuntzako irakaslia izatia gustatuko jatan, umieri gauza asko erakusteko baina irakasle ona izango naiz eta ez dittut bronka asko botako! Nagusixa naizenian ama be izango naiz.

Adur Odriozola, 7 urte



Asmatzailia izango naiz, gauza berriak asmatzeko! Robotak egittia gustatuko jatan eta kotxe berriak asmatzia be bai! Kotxe karreretako gidarixa izatia be nahiko neban, abiadura haundixan kotxian ibiltzeko!

Animalixak asko gustatzen jataz eta nagusixa naizenian albaitaritza ikasiko dot, animalixak ahal dan eta onduen zaintzeko! Gehixen gustatzen jatazen animalixak zaldixak eta konejuak dira.

Izaro Usobiaga, 7 urte



sUDOKU

6		9		2	3			
		3	5					
	5	7	9	1				
		6		7				8
8			3		5			7
5				9		2		
				5	1	7	9	
				9	6			
			6	4		3		5



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Maiatzaren lehena, langilearen nazioarteko eguna da, munduko leku askotan ospatzen dena eta langilien egoeraren inguruan gogoeta egiteko aitzakia.

Langilien eskubidietan zer egin dogu, aurrera edo atzera?

HIART ARLUZIAGA

Telebistako emisio arduraduna



Diskurtso ofizialek baietz dinuen arren, errealidadia hor dago eta datuak be bai. Nere ustez atzera egin dogu langilien eskubidietan. Sistema kapitalista honetan jarraitzen dogun bittartian langiliek ez dabe askatasunik lortuko.

YADIRA ETA VANESA TIGRERO

Tailerreko langilia eta etxeakoandria



Lehenpapelik barikolan-gile gehixago zeguan. Oin ordia, eta hori gehixago kontrolatzen dala uste dogu, gauzak pixka bat hobeto dagozela. Papelik ez dakan langiliak lan asko egin eta diru gutxi jasotzen dau.

JOSE RAMON ZABALA

Mekanikua



Atzera egin dogu, duda abarik. Garai batian lortutakuak oin galdu egin doguz. Gainera, gainian dakagun krisixakin lehenengotik langiliak kaleratu egitten dira eta dirua, dakanak hartzen dau beti.


JABIER ARGATE

Langabetua




Jende askok pentsiuen erdixa galdu egin dau. Halako erabakixekin ez goiaz aurrera. Krisixa be hor dago eta ikusten danez, dirua enpresa jabiendako doia eta langilia segiduan botatzen dabe kalera!


Lana lortu nahi baduzu kurrikulumaz harritu beharko nauzu...




Ongi, ikusten duzunez zerrategi batean egin dut lan...



Orbaina eta gurpil-aulkia eraikuntzan lortu ditut...



Eta azkenik, termonuklearran egon naiz lanean... Harrituta?!



KOMIKIXA

KM
Desing

Diseinua eta Formena

Poligono Amillaga, n° 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434
Jon Azkorbeberria Txurrutxa
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

150 lagun inguru Irukurutzeta Egunean



Santa Kruz egunaren ostean ospatu zuten, urteroko ohiturari jarrituz, Irukurutzeta Eguna. Eguraldia lagun, Irukurutzetan bertan egin zuten ospakizuna, trikitilarien laguntzaz. Goizeko 11:00etan hasita, 60 litro salda eta 200 txorixo pintxo banatu zituzten antolatzaileek.

Ihardunaldi antidesarrollistak gaztetxean

Maiatzaren 4tik 30 bitartean garapenaren kontrako ihardunaldiak antolatu ditu Soraluze-ko Talde Antidesarrollistak.

Egitaraua:

Zapatua 9, AHTaren kontrako manifestazioa Iruñean

Domeka 10, Bazkaria eta ondoren tailerra **“hausteko, ezagutu legeak”**

Astelehena 11, Argentinako trenbide sarearen suntsiketaren gaineko bideo emanaldia

Eguena 14, hitzaldia: Azpiegitura erraldoiek kaltetutako herritarrak

Zapatua 16, Irteera: AHTak kaltetuko lukeen Angiozarko bailara ezagutzera. Gaueko 22:00etan **“S.O.S. Temible”** antzerkia gaztetxean

Domeka 17, Bazkaria eta ondoren mahai-ingurua: borroka moldeak

Astelehena 18, Ingalaterrako M11 autopistaren aurkako herri borroka

Eguena 21, Hitzaldia: Alemaniako hondakin nuklearraren garraioaren aurkako borroka. Lehenago, **“Stop Castor”** bideoa eta bertako lagun baten azalpenak.

20 lagun baino gehiago Jai Batzordean

Jai Batzordearen lehenengo bilera



Santa Ana jaiak prestatzeko bi bileran egin ditu Soraluze-ko Jai Batzordeak eta bietan 20 lagun baino gehiagok hartu dute parte. Lehenengo bileran, iazko egitarautik errepikatuko diren ekintzak zehaztu zituzten eta bigarrenean, partehartzailen eta e-mail bidez bidalitako proposamen berriak batzea izan zuten helburu (*Animalia-erakusketak; Apar-festa; Errekortadoreak; Euskal Dantzak; Nazioarteko Dantzak; Ginkana; RKzulo jaialdia; Karaokea...*). Hurrengo

bilera maiatzaren 12an, izango da eta 2009ko egitarau zehatza osatzen hasiko dira.

Jaietako kartel lehiaketa

Jaietako kartel lehiaketa martxan da dagoeneko. Kartelak ekainaren 12rako, eguerdiko ordu biak baino lehen, aurkeztu behar dira Udaletxeko bulegoetan. Euskarri gogorrean eta sobre edo karpeta itxi batean egon behar dira, eta barrualdean egilearen izen-abizenak, adina eta helbidea edo bizilekua jarrita izan behar dute.

SARIAK:

- 1.-LH 1-2 mailak: **100 euro.**
- 2.-LH 3-4 mailak: **100 euro.**
- 3.-LH 5-6 mailak: **100 euro.**
- 4.-DBH 1-2 mailak: **100 euro.**
- 5.-DBH 3-4 mailak: **100 euro.**
- 6.-Helduak: **300 euro**



Soraluzetarrak V. Debagoieneko Trikiti Egunean

Debagoieneko 10 Musika Eskolek hartu zuten parte Antzuolan ospatu zen Trikiti Egunean, Soraluze barne. Guztira 228 trikitilari eta panderojole aritu ziren giroa alaitzen. Hurrengo urtean, Soraluzean egingo da Debagoieneko VI. Trikiti Eguna.

TXURRUKA
JATETXEA

www.txurruka.com
943 75 15 81

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1. ezk.
Tlfonua: 943 75 17 82 Faxo: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA

Obrak direla eta ekainetik aurrera igerilekua itxita

Igerilekuko aldageletan egin behar diren obrak direla eta igerilekua eta aerobikeko gelak itxita egongo dira lanak amaitu



arte. Gainerako instalazioak baina, gimnasioa eta frontoia, erabiltzeko moduan egongo dira.

Bi aukera

Alde batetik, Bergarako kiroldegiko igerilekua erabil daiteke, baina maiatzaren 15a baino lehen Soraluzeke kiroldegiko abonua ordainduta izan behar da eta Bergarako igerilekura joaterakoan, Soraluzeke abonua txartela aurkeztuko. Beste aukera, urteko abonua kopuru proporzionala bueltatzea da, maiatzaren 15a baino lehen dirua bueltatzeko eskaera bete beharko da udaletxean. Kontu korrontean abonatu da dirua eta Soraluzeke kiroldegiko abonua txartela entregatu beharko da obrak iraun bitartean. ●

Sorako Nesken Erregional Taldeak finala jokatu du zapatuan

Azken jardunaldian Aretxabaletako Arizmendiren aurka 3-1 irabazi eta gero aise erraztu zaie finalerako bidea. Sorako Nesken Erregional taldeak igoera faseko finala jokatuzeko txartela lortu zuen. Finala, larunbat honetan jokatu dute

eta Mondra izango dute aurkari, Bergarako Ipintza futbol zelaian. Irabaziz gero, igoera fasearekin jarraituko dute Euskadiko Liga Nazional mailan jokatuz. Irabazi zein galdu, larunbat honetan iluntzeko bederatzietan udaletxean harrera egingo zaie. ●

EMAITZAK

FUTBOLA

Touring C.D. - Sora (Erreg.N.) 2-4
Sora (Erreg.M.) - Allerru B... 3-2
Sora (Kad.) - Ikasberri..... 2-4
Sora Jub (Atsedena)

Sora (Erreg.N.) - Arizmendi... 3-1
Getariako Keta F.T. - Sora (Erreg.M.)... 4-0
Amaika Bat F.T. - Sora (Jub.) 7-1
Sora Kad (Atsedena)

PELOTA

2009/04/26

Titin III - Laskurain22
Xala - Eulate17

2009/05/03

Titin III - Laskurain11
Berasaluze VIII - Begino15

2009/05/05 Bergaran

Muguruza - Jauregi.....10
Yaldi - Zezilio22

AGENDA

FUTBOLA

Zapatua 9, 18:00etan Ipintzan

Sora (Erreg.N.) - Mondra

Domeka 10, 17:00etan Ezozin

Sora (Erreg.M.) - Landetxa

Domeka 10, 11:30etan Mutrikun

Mutriku - Sora (Kad)

MENDI IRTEERA

Hilaren 10ean, domeka, Adarrara mendira irteera



ZORION AGURRAK



June Eguren

Maiatzaren 3an sei urte.
Zorionak panpox!
Etxekoen partez



Pau Rascon

Maiatzak 7an, Pauk 2 urtetxo!
Zorionak txiki eta horrelako
alaia izaten jarraitu!
Onar eta etxekoen partez!



Beñat Urreztarazu Iglesias

Ongi etorri mundu hontara
poli tx hori!!!
Familiakoen partez!



Irune eta Juanan

Maiatzaren 20an eta maiatzaren 21ean
Urriak betetzen ditzuzelako
zorionak!! Ondo ondo pasau eguna!!
Etxekuen partez.



Eneko Alvarez Basauri

Maiatzak 11n 4 urte!
Zorionak gaiztotxo!
Lukaren eta etxeko
guztien partetik!



Ekain Larrañaga Agirre

Apirilaren 21ean 5 urte!
Zorionak gure mutiko
hundiari! Patxo pila bat
Etxekuen partez



Naroa Ros Gil

Maiatzaren 18an 3 urte!
Zorionak potxola!
Segi horrela etxekuen
partez!



Mila Gartzia Zabala

Maiatzaren 24an!
Zorionak eta muxu
haundi bat
etxekuen partez!



Garazi Prieto Fernandez

Maiatzaren 13an urtebete!
Zorionak sorgintxo eta
muxu haundi bat etxekoen
partez! guztien partetik!



OHARRA

Udalak txakur-kaken poltsen aurrean jarrera arduratsua eskatu du

Soraluzeko udalak arduraz jokatzeko eskatu du herritarrei banatzen dizkien txakur kakak jasotzeko poltsei dagokionez. Denontzako egon daitezen, beharrezkoa da aipatu poltsei erabilera egokia ematea.

jaiotakoak

AMETS ALBERDI CASARES
OMARA DUAL MORENO



hildakoak

JUAN KRUIZ ARIZAGA LARREATEGI
JOSE MARI LASKURAIN LARREATEGI



LEHTAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► Gaur egungo udaletxeko eraikina, ze urtetan egin zeben?

1- 1700. urtian
2- 1722. urtian
3- 1800. urtian

► Aurreko galderak, ez du erantzun zuzenik izan.

► Saria: "Auskalo" euskarazko tribiala.

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu aldizkaria@pilpilean.com

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Javi Elorza

ELIZBURU ETA ESTAZIOA

Argazki hau, Estazino kalia etarata dao 1971. Aurtian, oin dala 38 urte. Kotxiak eta umian janzkerak 70. hamarkada zelakua zan erakusten dabe. Harrezkero bertan agertzen diran etxiak bota eta gaur egungo eraikin altuak egin zittuen.

●

JUAN ARIZAGA "PITXI"

APIRILAREN 24AN HIL ZEN 82 URTE ZITUELA

Korta baserriko semia. Kortako Juan.
Zure bihotza beti izan zan menditarra eta baserritarra.
Irakurle nekaezina zinan eta berbetalari atsegina.
Zaren tokixan zarela, ez zaittugu inoiz ahaztuko!
Senidiak eta San Andresko Elkartia

20 urte espetxean

PEIO ASKATU

MAIATZAK 16

19:00 EKITALDIA polikiroldegian

20:00 MOBILIZAZIOA plaza berritik

Soraluzeko Amnistiaren Aldeko Mugimendua

heriotza zigorrik ez!
biziarteko zigorrik ez! sakabanaketarik ez!

**DAGOZKIEN
ESKUBIDUEN
JABE**



Dantzari Gazteen Eguna

Maiatzaren 31, domekia

Izena emateko:

Pil-pileanera deituta

(943 75 13 04)

edo **Iratxo Goxodendan**.

Ekintza honekin gure bailaran euskal dantzak indartu eta garatzeko laguntza ematen diharduzu.

Eskerrik asko dantzazale!



DANTZARI GAZTEAK ETXEAN HARTZEKO GERTU DAUDEN PERTSONAK BEHAR DIRA

UNIBERTSITATEA
BIZITZEKO
PREST!



ATE IREKIAK

etorriko zarela jakinarazi!

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ARRASATE-MONDRAGÓN

MAIATZAK 21 - 17:30 osteguna AULA MAGNA 2. zikloa

Tel.: 943 73 96 29 // bguerenu@eps.mondragon.edu

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ONATI

MAIATZAK 14 - 18:00 osteguna AULA MAGNA

Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

IRUN

MAIATZAK 21 - 18:00 osteguna AULA MAGNA

Tel.: 943 63 91 29 // ioiartzabal@bidasoa.eteo.mondragon.edu

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA

MAIATZAK 9 - 11:00 larunbata AULA MAGNA 2. zikloa

Tel.: 943 71 41 57 // sarrera@huhezi.mondragon.edu

www.mondragon.edu/prest



Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua